

Euskara indartzeko plana Haur Hezkuntzako eremu ez- kurrikularran



Ikasle Kaiera

Asier Romero Andonegi



1. PROIEKTUAREN GALDERA ETA AGERTOKIA

1.1. GALDERA:

Posiblea da euskararen erabilera sustatzea eskolaz kanpoko jardueretan?

1.2. AGERTOKIA:

Duela hiru hilabete, hasi zara Bizkaiko eskola publiko batean irakasle. Laster konturatu zara, zu ikasle zinen garaiarekin alderatuta, egungo eskolak eskakizun, erantzukizun eta konplexutasun handiagoko lana duela hizkuntza arloan: komunikazio gaitasuna eleanitza garatzea, eleaniztasunerako baliabideak gero eta heterogeneoagoak dira, euskararen indarberritzean hezkuntza sistemak duen erantzukizuna.

Bestalde, euskararen presentzia gero eta txikiagoa da eskolan, batez ere eremu ez-kurrikularren: jolasaldietan, jantokian, garraioan, eskolaz kanpoko ekintzetan eta abarretan. Zeuk jasota egoera erabat aldatu da eta eskolak bere planteamenduak eguneratu behar ditu. Eztabaida bizi-bizia da, bai eskolan bai etxean dago: orain arteko hizkuntza-ereduekin jarraitu?, zergatik esku hartu gelaz kanpoko jardueretan gertatuz gero?, nola bilatu neurri eraginkorrekina kalean nagusi den hizkuntza gaztelania denean? zein aldaketa egin arlo metodologikoan jomugak lortzeko? nola landu eskolako hizkuntza eta kale eta etxe giroko hizkuntza bat ez datozenen? zein pauso eman metodologiaren aldetik euskararen presentzia ziurtatzeko? nola islatzen da euskararen erabilera Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuan?

Zure ikastetxean ere eztabaida hori bizi zarete. Dena den, ezbaia bideratu eta aurre-pausoak eman nahirik, ikasturte amaierarako klaustro bat iragarrita dago. Gainera, eskolako zuzendaritzak gai horretaz dokumentu batzuk bidali dizkizu (Euskadiko Eskola Kontseiluak egindako txostena, Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batxordeak idatitako txostena eta Eustat agentziak burututako euskararen estatistikak). Klaustro hori oso garrantzitsua da eta bertan irakasleek ondoko hau erabaki beharko duzue: zein izan behar diren, zuen ustez, euskararen erabilera indartzeko proposamenak eremu ez-kurrikularretan.

Zuri gaia garrantzitsua iruditzen zaizu eta eztabaidan era aktiboan parte hartu nahi duzu. Horregatik, zu bezala eskolara heldu berriak diren eta hasieratik zurekin ondo moldatu diren irakasle batzuekin hitz egin eta aipatutako klaustrorako proposamen berritzaile bat aurkeztea pentsatu duzue.

Eskolako zuzendaritzak azaldu duenez, proposamen idatzi bat aurkeztu beharko duzu klaustroan eztabaidatu eta bozkatuko dena. Proposamenak bi zati izango ditu, bata bestearen osagarri izango direnak: oinarrizko dokumentua (helburuak, jardun-irizpideak,...) eta justifikazio dokumentua (oinarrizko dokumentuan zehazten diren puntuen justifikazio teorikoa garatuko da).

Lanean hasi zarete eta lehen zailtasuna sortu zaizue, nola idazten da honelako proposamen bat?

2. METODOLOGIA

2.1. SARRERA

Proiektuetan Oinarrituriko Ikaskuntzaren (POI) metodologiaren arabera egingo dugu lan. Metodologia horren oinarrietako bat enuntziatuan bertan islatzen da: egin behar duzuen proiektu bat aurrera ateratzeko ikasi beharko duzuen zuek erabaki eta antolatu beharko duzue, alegia. Hori bai, irakaslearen gidaritzarekin, irakasleak zuen ibilbidea orientatu egingo du eta hainbat ataza prestatu ditu epean gai izan zaitezten proiektua ondo egiteko, oraingoan hala ere, plangintzaren ardura zuen esku egongo da hein handiago batean.

2.2. LAN-ZAMA

Proiektu honek ikasgaiaren %35 eskatzen du, hau da 2,1 kr. (52,5 ordu). Beraz, ikasle bakoitzak 52,5 ordu bete beharko ditu. Gainera, taldeek bost kide izanez gero, talde bakoitzak 262,5 ordu bete beharko ditu. Ordu hauetatik, herena ikasgelan bertan garatuko da, 4 orduko 4 saiotan. Honetaz aparte talde bakoitzak gelatik kanpo lana egin behar du. Beraz, taldeak 5 pertsonen osatuko dira, eta talde bakoitzak koordinatzaile bat eta idazkari bat izendatu behar ditu.

2.3. TALDEAREN FUNTZIONAMENDUA

Batzen bakoitzean hartu beharko diren zenbait erabaki eta hurrengo bilerarako egin beharko diren banakako lanak definitu beharko dira, nor zer egingo duen eta noizko, alegia. Taldeko idazkariak hartutako erabakiekin batzarretako aktak bete beharko ditu (fase bakoitzean lanaren planifikazioa eta bakoitzaren errolak). Aktak taldeko koordinatzaileari emango dizkio, eta azken honek tutorearekiko batzarretara ekarri beharko ditu.

Adituen taldea: Hiru aditu talde egongo dira taldeen koordinatzaileez osatuta.

Aditu talde bakoitzean proiektu taldeetako funtzio bera duten adituak batuko dira, egin behar duten lana guztien artean egiten ikasteko. Adituak bere kide adituekin batera bere gaiari buruz ikasi egingo du, gero ikasitako hori bere taldeko proiektuari aplikatu beharko dio ebazpide teknikoak lortzeko.

2.4. JARDUERA-MOTAK

Proiektuak hiru fase izango ditu: testuinguru-fasea; garapen-fasea; eta aurkezpen-fasea. Fase bakoitzean jarduera mota ezberdinak erabiliko dira. Metaforikoki, eta proiektua hobeto ulertzeko, jolastokiko eremuak erabiliko ditugu. Hala, fase bakoitzean jolastokiko eremu batean egongo gara.

-Testuinguru-fasea (Jolasteko lurrean):



Fase honetan proiektuarekin konpromisoa hartu beharko duzue. Horretarako, taldeen eraketa egingo da (rolak banatu, funtzionamendurako barne arauak definitu, eta abar). Irakaslearen aldetik, proiektua aurkeztuko da (helburuak, eginkizunak, proiektuaren interesaren balioespena, eta abar). Gainera, bideo bat erabiliko da agertokiaren aurkezteko: Zein hizkuntza entzuten da Haur Hezkuntzako jolastokian? (Bideoaren esteka Egelan dago)

EMATEKOA:

1. ematekoa: Lan-planaren dokumentua: zereginak, egutegia, konpromisoak, asmoak, lanerako arauak... (Eranskinean aktaren eredu bat dago).

-Garapen-fasea (Zabuetan):



Fase honetan proiektua bera garatu behar duzue elkarlanean. Horretarako, hiru azpifase bete behar dituzue:

1. azpi-fasearen helburua: pentsamendu magikoa, sinbolikoa, gorputzekoa, hitzekoa, fantastikoa eta poetikoa lantzeko baliabideak ezagutzea.

Horretarako, 1) dokumentazio-bilatze kooperatiboa egin behar duzue (zer dira pentsamendu mota horiek, zertarako balio dute eta zein dira lantzeko baliabideak).

2. azpi-fasearen helburua: euskararen erabilpenerako eskolaz kanpoko ekintzei (baliabide-mota, antolakuntza eta metodologia-irizpideak) buruzko informazioa aztertzea. Horretarako, 1) bost artikulua irakurri behar dituzue puzzle teknikaren bitartez (bakarka eta taldeka) eta 2) eztabaida gidatua proposatzen da (zein zailtasun detektatzen dira?)

3. azpi-fase honetan, hezkuntza-errealitate berrien inguruko hausnarketa egitea. Horretarako, 1) bost artikulua irakurri behar dituzue puzzle teknikaren bitartez (bakarka eta taldeka) eta 2) eskolako maisu-maistra batekin elkarriketa bat diseinatu eta grabatu behar du. Beraz, bilera hori prestatu behar du talde bakoitzean, ondoren taldeetako adituen artean beharrak, helburuak eta abar erabaki behar dituzte (bakarka, taldeka eta adituen taldea).

EMATEKOAK:

2. ematekoa: Jolas bat diseinatu poster batean.
3. ematekoa: Eskolako diagnosi-txostenaren aurkezpena (Slideshare-an)

-Aurkezpen-fasea (Jolastxiki):



Fase honetan proiektuaren azken emaitza aurkeztu beharko duzue eta taldekide bakoitzak proiektu horren atal txiki bat garatuko du. Beraz, lehenbizi dokumentuaren diseinu orokorra adostu beharko uzue (bereziki, aurkibidea eta gaien antolamendua eta diseinu-irizpideak). Ondoren, bakoitzak txostenaren atal labur baten ardura hartuko du eta hori banaka prestatu. Ondoren, elkarri zuzenduko diote prestatutako lagina, eta hobekuntzarako proposamenak ere egingo dizkiote elkarri. Eta azkenik beren proiektuaren ahozko aurkezpena egingo dute (bakarka eta taldekoa).

Aurkezpen horretan talde bakoitzak beste taldeak aurkeztu duen proiektuaren alderdi sendoak eta ahulak zerrendatuko ditu. Eta ikaskideek egindako atalen artean, hiru aukeratuko dituzte: a) interesgarriena; b) landuena; c) estiloaren aldetik ereduagarriena. Aukera balego, aurkezpen honetara alorreko profesionalen bat ekarriko genuke, bere iritzia eman eta proiektuen gaineko balorazioa egin dezan (taldekoa).

EMATEKOAK:

4. ematekoa: Euskararen erabilera indartzeko proposamenaren txostena.
5. ematekoa: Gutxieneko ezagueren proba
6. ematekoa: Taldearen koaderno

3. EMATEKOEN ZERREDA

Aurreko atalean aipatu dira emateko esangarrienak. Alabaina, hona hemen mugarrizat joko ditugunak.

Faseak	Ematekoak	Ebaluazio arduraduna	Ebaluazio-mota
1	-Lan-planaren dokumentua (lehen aktan garatuta, 1. <i>eranskinean</i>)	Irakaslea	Eginda (bai/ez)
2	-Jolas bat diseinatu poster batean (2. <i>eranskinean</i>) -Eskolako diagnosi-txostenaren aurkezpena (3. <i>eranskinean</i>)	Irakaslea Irakaslea	Ebaluaziorako irizpideak Ebaluaziorako irizpideak
3	-Euskararen erabilera indartzeko proposamenaren txostena (4. <i>eranskinean</i>) -Gutxieneko ezagueren proba (5. <i>eranskinean</i>) -Taldearen koadernoak	Ikasleak/Irakaslea Irakaslea	Irakasleak emandako errubrika eta autoebaluazioaren irizpideak Berdinen arteko ebaluazioaren eta autoebaluazioaren irizpideak Aurkeztuta (bai/ez)

4. EBALUAZIOA

Ikasgaiaren ebaluazioa etengabekoa izango da, eta hurrengo alderdi hauek izango ditu: ikasgaiarekiko jarrera, proiektuen kalitatea, idatzizko lanak eta ahozko aurkezpenak. Irakasleak egindako ebaluazioaz gain, ikasle bakoitzak aukera izango du autoebaluazioa egiteko. Azken hau, azken notaren %20a izango da.

Produktua	Ebaluazio osoari dagokion portzentajea
Idatzizko proba: oinarrizko ezagutzak	%30

Haur Hezkuntzako ahozko ekoizpenaren gaineko grabazio bat	%35
Euskararen erabilera indartzeko proposamenaren txostena	%35

Aurkeztutako proiektua hirugarren zutabea da ikasgaiari, eta portzentajeari dagokionez, planteatutako proiektuak %35 eskatzen du. Emateko bakoitzaren entregatzean, ikasleek *feedback* jasoko dute alderdi sendoekin eta ahulekin.

Faseak	Ematekoak	Portzentajea
1	-Lan-planaren dokumentua	%5
2	-Jolas bat diseinatu poster batean	%25
	-Eskolako diagnosi-txostenaren aurkezpena	%25
3	-Euskararen erabilera indartzeko proposamenaren txostena	%35
	-Gutxieneko ezagueren proba	
	-Taldearen koadernoak	%5
		%5

Bestalde, ebaluazioa erabiltzeko tresnak hiru izango dira (eranskinetan daude baliabideak):

a. Banako ikaslea ebaluatzeko:

-Idatzizko lanak ebaluatzeko txantiloak (originaltasuna, koherentzia, kalitate linguistikoa...).

-Ahozko aurkezpenak ebaluatzeko txantiloak (originaltasuna, koherentzia, kalitate linguistikoa, elementu estralinguistikoen erabilpena...)

-Hausnartzeko fitxa.

b.Taldeetako lana autoebaluatzeko:

-Eguneroko aktak.

c.Irakasleak egindakoa ebaluatzeko:

-Errubrikak (ikerketaren lanaren ebaluatzeko item-ak eta ahozko aurkezpenerako ebaluatzeko item-ak)

Ematekoak epe barruan entregatu beharko dituzue. Eta irakasleak emateko emango dizue *feedback*-a. Ematekoen bertsio zuzenduak onartuko dira; beraz, irakaslearen gomendioak eta zuzenketak hurrengo ematekoa egiteko erabili ahalko dituzue. Azkenik, eta ematekoen ebaluazio-irizpideei dagokionez, argi izan dezazuen zertan izango zareten ebaluatuak, errubrika batzuk osatuko dira.

5. PLANGINTZA ETA DENBORALIZAZIOA

Proiektu hau lau astetan garatuko da 2.8. puntuaz aldatu den bezala; hau da, 4 orduko 4 gelako saiotan. Gainera, ikasle bakoitzak gelan sartutako orduak gelatik kanpo ere sartu beharko ditu.

Asteak	Edukia
2	Proiektua (1. fasea)
5	Proiektua (2. fasea)
9	Proiektua (2. fasea)
14	Proiektua (3. fasea)

Talde bakoitzak epeak ongi kontrolatzeko, beste taula bat aurkezten da non agertzen diren jarduera-mota bakoitzari dagozkion orduak.

1. fasea		
Proiektuaren aurkezpena	2 ordu	gelan
Taldeko bilera	2 ordu	Ordu bat gelan Ordu bat gelatik kanpo
Lan-planaren dokumentua definitu eta idatzi (1. ematekoa)	4 ordu	Ordu bat gelan 3 ordu gelatik kanpo
Tutorekin kontrol-bilera	2 ordu	Gelatik kanpo
2. fasea		
Pentsamenduen gaineko dokumentazio-bilatze kooperatiboa + aurkezpena	4 ordu	Ordu bat gelan Ordu bi gelatik kanpo
Euskaren erabilpenerako eskolaz kanpoko ekintzei buruzko informazioa aztertzea + artikulua irakurri + eztabaida gidatua prestatu	5 ordu	Bi ordu gelan Hiru ordu gelatik kanpo
Jolas bat diseinatu poster batean (2. ematekoa)	5 ordu	Ordu bat gelan 4 ordu gelatik kanpo
Tutorearekin kontrol-bilera	1 ordu	Gelatik kanpo
Hezkuntza-errealitate berrien inguruko hausnarketa egitea + artikulua irakurri	4 ordu	Ordu bi gelan Ordu bi gelatik kanpo
Eskolako maisu-maistra batekin elkarrizketa bat diseinatu + elkarrizketa egin	6 ordu	Ordu bat gelan 5 ordu gelatik kanpo
Eskolako diagnosi-txostenaren aurkezpena prestatu (<i>Slideshare</i>) (3. ematekoa)	5 ordu	Ordu bat gelan 4 ordu gelatik kanpo
Tutorearekin kontrol-bilera	1 ordu	Gelatik kanpo
3. fasea		
Euskararen erabilera indartzeko proposamenaren txostena (4. ematekoa): a) Gaien antolamendua eta diseinu-irizpideak b) Adituekiko bilerak c) Txostenaren idazketa	8 ordu eta 30'	3 ordu eta 30' gelan 5 ordu gelatik kanpo
Gutxienerako ezagueren proba (5. ematekoa)	ordu erdi bat	Ordu erdi bat gelan
Taldearen koaderno prestatu (6. ematekoa)	3 ordu	Gelatik kanpo
Tutorearekin kontrol-bilera	2 ordu	Gelatik kanpo

Aurreko plangintza egutegiarekin uztartu behar da ikaslariak jakin dezan nola kokatzen diren jarduera guztiak, denbora mugak kontuan hartuta.

1. Lehen faseari dagokionez, kurtsoko **bigarren astean** burutuko da. Gelan bertan proiektuaren gauza batzuk landuko dira (proiektuaren aurkezpena eta taldeko bileraren bitartez lan-planaren dokumentua definitu eta idatzi) baina gelatik kanpo ere beste jarduera batzuekin jarraitu behar dituzte (lan-planaren dokumentua prestatu entregatzeko eta tutorearekin kontrol-bilera).

Eguna	Jarduera	Lekua eta orduen planifikazioa
Irailak 18	Proiektuaren aurkezpena	Bi ordu gelan (08:30-10:30)
	Taldeko bilera	Ordu bat gelan (10:30-11:30) Ordu bat gelatik kanpo
	Lan-planaren dokumentua definitu eta idatzi (1. ematekoa)	Ordu bat gelan (11:30-12:30) 3 ordu gelatik kanpo
Irailak 19	Tutorearekin kontrol-bilera	Tutorearen bulegoan, eguerdiko 13:00etan
Urriak 8	1. ematekoa entregatu behar da.	E-gelan

Lehen kontrol-bilera horretan, taldeko koordinatze bakoitzak tutoreari kontatu behar dio zein diren puntu indartsuak eta zein ahulak eta nola dagoen antolatuta / banatuta lan-planaren lana. Bestalde, 1. ematekoa urriaren zortzian entregatuko da E-gelan dagoen esteka batez baliatuz.

2. Bigarren faseari dagokionez, kurtsoko **bostgarren eta bederatzigarren asteetan** burutuko da. Bostgarren astean, hiru jarduera buruko dira: lehenengoa pentsamenduen gaineko aurkezpena izango da, horretarako bilatze kooperatiboa egingo da; bigarrena, euskararen erabilpenerako eskolaz kanpoko ekintzei buruzko informazioa aztertzea eta horretaz eztabaida gidatua burutuko da; eta hirugarrena jolas bat diseinatu behar dute poster batean. Hiru kasuetan gelan bertan ez da egingo planteamendua baino. Hala ere, bi gaien gaineko lerro nagusiak aztertuko dira aurkezpenaren eta eztabaida gidatuaren bitartez.

Eguna	Jarduera	Lekua eta orduen planifikazioa
Urriak 8	Pentsamenduen gaineko dokumentazio-bilatze kooperatiboa + aurkezpena	Ordu bat gelan (08:30-9:30) Ordu bi gelatik kanpo
	Euskaren erabilpenerako eskolaz kanpoko ekintzei buruzko informazioa aztertzea + artikuluak irakurri + eztabaida gidatua prestatu	Bi ordu gelan (9:30-11:30) Hiru ordu gelatik kanpo
	Jolas bat diseinatu poster batean (2. ematekoa)	Ordu bat gelan (11:30-12:30) 4 ordu gelatik kanpo
Urriak 9	Tutorearekin kontrol-bilera	Tutorearen bulegoan, eguerdiko 13:00etan
Azaroak 5	2. ematekoa entregatu behar da.	E-gelan

Bigarren kontrol-bilera horretan, taldeko koordinatze bakoitzak tutoreari kontatu behar dio zein diren puntu indartsuak eta zein diren ahulak eta nola dagoen antolatuta / banatuta lan-planaren lana jolas hori diseina dezaten. Bestalde, 2. ematekoa azaroaren bostean entregatuko da E-gelan dagoen esteka batez baliatuz.

Bigarren fasean, bigarren zatiari dagokionez **bederatzigarren astean** burutuko da. Aste honetan garrantzia emango zaio hezkuntza-errealitateari, horretarako ikasleek aukera izango dute eskolako maisu-maistra bati elkarrizketa bat egiteko. Elkarrizketa hori egiteko metodologia kualitatiboaren ezaugarriak azalduko dira. Bestalde, elkarrizketaren emaitzak funtsezkoak izango dira 3. ematekoa antolatzeko. Testuinguru honetan ezin dugu ahaztu eskolako diagnostia egin dezaten, eskolako errealitatea bizi behar denik eta eskolako lekukoaren iritziak erakargarriak izango direnik txostenerako.

Hirugarren kontrol-bilera horretan, taldeko koordinatze bakoitzak tutoreari kontatu behar dio zein diren puntu indartsuak eta zein diren ahulak eta nola dagoen antolatuta / banatuta lana planteatutako elkarrizketa egin dezaten Bestalde, 3. ematekoa abenduaren hamarrean entregatuko da E-gelan dagoen esteka batez baliatuz.

Eguna	Jarduera	Lekua eta orduen planifikazioa
Azaroak 5	Hezkuntza-errealitate berrien inguruko hausnarketa egitea + artikuluak irakurri	Ordu bi gelan (08:30-10:30) Ordu bi gelatik kanpo
	Eskolako maisu-maistra batekin elkarrizketa bat diseinatu + elkarrizketa egin	Ordu bat gelan (10:30-11:30) 5 ordu gelatik kanpo
	Eskolako diagnosi-txostenaren aurkezpena prestatu (<i>Slideshare</i>) (3. ematekoa)	Ordu bat gelan (11:30-12:30) 4 ordu gelatik kanpo
Azaroak 6	Tutorearekin kontrol-bilera	Tutorearen bulegoan, eguerdiko 13:00etan
Abenduak 10	3. ematekoa entregatu behar da.	E-gelan

3. Hirugarren faseari dagokionez, kurtsoko **hamargarren astean** burutuko da. Azken aste hau euskaren erabilera idartzeko proposamenaren txostena idazteko erabiliko da. Gainera, gutxienerako ezagueren proba burutuko da landutako gaiak erreparatzeko asmoz.

Eguna	Jarduera	Lekua eta orduen planifikazioa
Abenduak 10	Euskararen erabilera indartzeko proposamenaren txostena (4. ematekoa)	Ordu bi gelan (08:30-12:00) 5 ordu gelatik kanpo
	Gutxienerako ezagueren proba (5. ematekoa)	Ordu erdi bat gelan (12:00-12:30)
	Taldearen koaderno prestatu (6. ematekoa)	3 ordu gelatik kanpo
Abenduak 11	Tutorearekin kontrol-bilera	Tutorearen bulegoan, eguerdiko 13:00etan
Abenduak 17	4. ,5. eta 6. ematekoak entregatu behar dira.	E-gelan

Laugarren kontrol-bilera horretan, taldeko koordinatze bakoitzak tutoreari kontatu behar dio zein diren puntu garrantzitsuenak proiektuan eta nola dagoen antolatuta / banatuta lana azken txostena idazteko. Bestalde, faltatzen diren ematekoak abenduaren hamazazpian entregatuko dira E-gelan dagoen esteka batez baliatuz.

Beste alde batetik, ezin dugu ahaztu proiektu hau beste irakasgaiaren edukiekin uztartzen direnik; horretarako taula batean azaltzen da nola egingo duen lotura hori.

Asteak	Edukia	Ematekoak
1	Ikasgaiaren aurkezpena	
2	Proiektua (1. fasea)	Lan-planaren dokumentua definitu eta idatzi (Proiektuaren 1. ematekoa)
3	1. gaia: Hizkuntzen elkarrekintza Haur Hezkuntzako geletan	
4	1. gaia: Hizkuntzen elkarrekintza Haur Hezkuntzako geletan	
5	Proiektua (2. fasea)	Jolas bat diseinatu poster batean (Proiektuaren 2. ematekoa)
6	2. gaia: Bigarren eta hirugarren hizkuntza ikastea eta erabilpena murgiltze-programa goiztiarren	
7	2. gaia: Bigarren eta hirugarren hizkuntza ikastea eta erabilpena murgiltze-programa goiztiarren	
8	2. gaia: Bigarren eta hirugarren hizkuntza ikastea eta erabilpena murgiltze-programa goiztiarren	
9	Proiektua (2. fasea)	Eskolako diagnosi-txostenaren aurkezpena prestatu (Slideshare) (Proiektuaren 3. ematekoa)
10	3. gaia: Hizkuntza estandarra eta hizkuntza-barrietateak eskolan	
11	3. gaia: Hizkuntza estandarra eta hizkuntza-barrietateak eskolan	
12	4. gaia: Eleaniztasuna eta kultur eleaniztasuna gelan	
13	4. gaia: Eleaniztasuna eta kultur eleaniztasuna gelan	
14	Proiektua (3. fasea)	Euskararen erabilera indartzeko proposamenaren txostena (Proiektuaren 4. ematekoa) Gutxieneko ezagueren proba (Proiektuaren 5. ematekoa) Taldearen koaderno prestatu (Proiektuaren 6. ematekoa)
15	Haur Hezkuntzako ahozko	Grabazioak klasean

	ekoizpenaren gaineko grabazio bat: aurkezpenak	aurkeztu behar dira eta egindako txostenak entregatu.
16-17	Azterketak	Idatzizko proba

6. Baliabideak

Faseak	Baliabideak
1	-Bilera egiteko akta-eredua: Eranskinean dago. -Proiekturako aurkezpenaren bideoa: Egelan dago.
2	-Pentsamendu magikoaren, sinbolikoaren eta poetikoaren gaineko baliabideak: -Oinarrizko baliabidea: A. Ruiz de Velasco eta besteak (2012): <i>El juego simbólico</i> . Bartzelona: Grao. -Bigarren mailako baliabideak: Egelan daude. -Euskararen erabilpenerako eskolaz kanpoko ekintzei (baliabide-mota, antolakuntza eta metodologia-irizpideak) buruzko informazioa: -Oinarrizko baliabideak: Egelan daude. -Hezkuntza-errealitate berrien inguruko hausnarketaren eta elkarrizketaren gaineko informazioa: Oinarrizko baliabideak: -M. S. Valles (2007): <i>Entrevistas cualitativas</i> . Madril: CIS. -Maia, J. eta Larrea, K. (2008): Euskara batua eta euskalkiak: http://testubiltgia.ehu.es/Euskara-batua-eta-euskalkiak-eskolan/batua_euskalkiak_eskolan.pdf -Bigarren mailako baliabideak: -Posterrak egiteko baliabideak: http://ineverycrea.net/comunidad/ineverycrea/recurso/Glogster-un-lugar-donde-plasmar-nuestras-ideas/45f7878c-fc18-4b40-96bc-b53bf9fc332a -Slideshare: http://es.slideshare.net
3	-Oinarrizko baliabideak: Egelan daude.

Bestalde, Egela funtsezko tresna izango da. Bertan izango dituzte fase bakoitzaren egindako lanak emateko eta partekatzeko gunea; balorazioak (irakaslearenak eta bestelakoak) jasotzeko eta antolatuta izateko gunea...

ERANSKINAK

1. Aktaren eredia:

Data:	Hasierako ordua:	Lekua:	Bukaerako ordua:
Lan-taldearen izena:			
Koordinatzailea:			
Etorri direnak:		Etorri ez direnak:	
Mintzatu diren gaiak:			
Hartutako erabakiak:			
Datorren bilerarako betebeharrak:			
Zer egin?	Nork egin?	Noizko egin?	Oharrak
Datorren bileraren gai-zerrenda:			
Hurrengo bileraren data:		Lekua:	Ordua:
Bileraren balorazioa (ongi egin duguna eta hobetzekoa):			

*Lehen akta honetan lan-planaren dokumentua definitu behar duzue: zereginak, egutegia, konpromisoak, asmoak, lanerako arauak...

2.Jolas bat diseinatu poster batean (ebaluaziorako irizpideak)

- Ezagutza: Talde kide guztiek jolas gaineko edozein galderari erantzun ahal diote.
- Edukia: Jolasaren edukia ulergarria da.
- Araua: Jolasaren arauak ulergarriak dira eta edozein hurrek ulertu ahal du arazo barik.
- Sormena: Umeentzat jolas dibertigarria da eta jolasaren ezaugarriak argiak dira eta sormena islatzen da
- Erakargarria: Koloreak, materialak eta erabilitako baliabideetan, oro har, oso erakargarriak dira.
- Lan-kooperatiboa: Ikasleak taldean eraginkortasunez egiten du lan.

3. Eskolako diagnosi-txostenaren aurkezpena (ebaluaziorako irizpideak)

3.1. Elkarrizketarako ebaluazio-irizpideak:

- Elkarrizketatuaren informazioa argia da.
- Elkarrizketatuari agur egin adeitasunez.
- Elkarrizketa hasi aurretik, sarrera batean elkarrizketaren gaineko informazioa jartzen da (helburuak, estruktura...)
- Elkarrizketaren galderak eta helburuak egoki uztartzen dira.
- Elkarrizketatuarekiko erabilitako alderdi estrategikoak egokiak dira.
- Erantzunekin ondorio esanguratsuak eraikitzen dira.

3.2. Eztabaidarako ebaluazio-irizpideak:

Alderdiak		Edukia
Alderdi linguistikoak		<ul style="list-style-type: none"> -Enuntziatuak egokiro eraikitzen ditu: esaldi bakunak eta konposatuak ondo eratzen ditu, ordena sintaktiko egokian. -Hiztegi egoki eta zehatza baliatzen du, eta beharrezkoa denean ezagutzen ez diren terminoen azalpena eskaintzen du. -Ahoskera garbia eta lasaia erabiltzen du, tonua eta erritmoa ondo kontrolatzen ditu. -Eztabaida egituratzen duten markatzaile linguistikoak erabiltzen ditu.
Alderdi soziolinguistikoak		<ul style="list-style-type: none"> -Beste hizlarien irudia zaindu eta errespetatzen du. Halaber, kortesia linguistiko eta adeitasun arauak erabiltzen ditu. -Ahozko erregistro formalaren ezaugarriak baliatzen ditu, besteak beste, eztabaidaren hasieran eta bukaeran agurtzeko forma egokiak baliatzen ditu. -Eztabaidarako erregelak errespetatzen ditu: mintzatzeko txandak, hizlari guztien partaidetza orekatua, giro lasaia...
Alderdi estrategikoak		<ul style="list-style-type: none"> -Espazioan egoki jartzen da, taldekideek nahiz hizlariak ongi ikusteko moduan. -Intonazio enfatikoaren bidez kontzeptu garrantzitsuak markatzen ditu, ahotsaren intentsitatea espazio dialektikora egokituz. -Gorputzaren hizkuntza eta proxemiako baliabideak ondo kudeatzen ditu, batez ere, keinuak eta begirada. -Atalen artean eten txikiak egiten ditu, diskurtsoari oxigenoa emanez. -Zenbait kontzeptu edo ideia berriz ere azal ditzatela eskatzen du. Era berean, galdera erretorikoak erabiltzen ditu.
Alderdi diskursiboak	Sarrera	<ul style="list-style-type: none"> -Kontuan hartzen du argudiatzearen testuingurua. -Argi dago defendatu nahi den tesia. -Gaia aurkezteko modua originala da. -Hartzaileen arreta eta interesa biltzea lortzen du.
Alderdi diskursiboak	Garapena	<ul style="list-style-type: none"> -Egoerak eta asmo komunikatiboak eskatzen dituzten argudioak ongi hautatzen ditu. -Diskurtsoa era argian eta antolatuan egituratzen du. -Argudioak etsenpluz, aipuz, metaforaz, audientziarenganako apelazioz, eta abarrez hornitzen ditu. -Argudioak egokiro justifikatu ditu? Kontra-argudiorik txertatu du norberaren diskurtsoan

		-Argudiozko lokailu diferente eta egokirik baliatu du ideiak era logikoan adierazteko.
Alderdi diskursiboak	Ondorioak	-Hasieran eta diskurtsoan zehar erabilitako argudioen araberrako ondorio garbirik eta koherenterik atera du. -Argudiatzeko saioa egoki amaitu du: laburpena eginez, entzuleak alde jartzeko dei eginez, esker-hitzak esanez, eta abar.

3.3. Slideshare plataforman aurkezpenerako ebaluazio-irizpideak:

- Azala eta izenburua ondo islatzen dira edukia.
- Aurkibidea ondo islatzen da edukiaren helburuak.
- Aurkezpenak aurkibidea errespetatzen du.
- Testuaren eta irudien arteko batasuna ikusten da.
- Taldekideek baliabideak erabiltzen dituzte aurkezpenean.
- Taldeak komunikazio-estrategia argia erabiltzen du ikerkuntza-prozesuan ikasitakoa azaltzeko asmotan.
- Diskurtsoa zuzena da eta ez dago akatsik.
- Aurkezpena dinamikoa da eta 10/15 minutu artean irauten du.
- Taldeak zuzentasunez erantzuten ditu planteatutako galderak.
- Partizipazioa orekatua da.
- Taldekideen arteko koordinazioa oso ona da.
- Aurkezpenean erabilitako baliabideek ondo funtzionatzen dute.
- Idazkera zuzena da.
- Aurkezten den hizkuntzaren ahozko zein idatzizko gaitasuna zuzenda da.

4. Euskararen erabilera indartzeko proposamenaren txostena (errubrika)

Irizpidea	Bikain/oso ondo	Ondo/nahiko	Eskas
Txostena			
Lortutako informazioa	Iturri desberdinak erabiltzen dira. Emandako informazioa lagungarria da auzi edo gaiaren ideia nagusiak ulertzeko.	Iturri batzuk erabiltzen dira. Aurkeztutako informazioa, gehienetan, lagungarria da kontzeptu nagusiak ulertzeko baina baten bat ez dago azalduta.	Iturri bat baino ez da erabiltzen. Aurkeztutako informazioa ez da batere lagungarria jakiteko zer den ikertutakoa.
Ortografia eta ideien antolakuntza	Ez dago akats ortografikorik. Ideiak hierarkikoki antolatuak daude. Kontzeptu esanguratsuenak egokitasunez azaltzen dira.	Akats ortografikoak batzuk daude. Ideiak, oro har, ez dira hierarkikoki antolatuak agertzen. Kontzeptu nagusiak azaltzen dira egokitasunez baina ez guztiak.	Akats ortografiko eta sintaktiko asko daude. Ideiak ez dira antolatzen hierarkikoki. Kontzeptu nagusiak ez dira azaltzen.
Zuzentasuna	Txostena egiteko irizpide teknikoak jarraitzen dira. Erabilitako iturriak aipatzen dira egokitasunez eta bibliografia aipatzeko arauak aintzat hartuz.	Txostena egiteko irizpide tekniko batzuk jarraitzen dira baina akatsak daude. Erabilitako iturri batzuk egokitasunez aipatzen dira baina ez guztiak.	Irizpide teknikoak ez dira betetzen. Erabilitako iturriak ez dira egokitasunez aipatzen.
Proposatutako ekintza			
Gaiarekin erlazioa	Ikertutako gaiarekin erlazionatuta dago zuzenki. Ideia eta kontzeptuak argitasunez agertzen dira.	Ikertutako gaiarekin dago erlazionatuta baina ez da gai nagusia. Ideia eta kontzeptu batzuk agertzen dira.	Ez da agertzen erlazioa edo gaizki erlazionatuta dago. Ez dira apenas erabiltzen kontzeptuak.
Proposatutako analisia	Analisian azaltzen da nola erlazionatzen den gaia. Analisia euskara suspertzeko laguntzen du eta interpretazio bat proposatzen du.	Analisia ez da argia, ez baita azaltzen nola erlazionatzen diren kontzeptuak. Analisia euskara suspertzeko orientazioa ematen digu baina interpretazioa ez	Analisia oso iluna da ez baita ulertzen proposatutakoa. Analisia ez digu euskara suspertzeko ekintza ulertzen laguntzen.

		dago ondo aurkeztuta.	
Originaltasuna, zuzentasuna eta egokitasuna	Aukeratuta baliabidea originala da. Agertzen diren ideia, kontzeptu eta diskurtsoak zuzenak dira soziolinguistikaren teoriak aintzat hartuz. Edukia egokia da.	Aukeratutako baliabidea komuna da, ez originala. Agertzen diren ideia, kontzeptu eta diskurtsoak, oro har, zuzenak dira baina akats batzuekin. Edukia egokia da, oro har.	Baliabideak ez du gaiarekin erlaziorik. Akatsez beteta dago eta agertzen diren kontzeptuak gaizki erabiltzen dira.
Eguneroko lana			
Interesa	Ikasleak jarrera aktiboa erakusten du saioetan: apunteak hartzen ditu, zalantzak planteatzen ditu, ikaskideen mintzaldiak entzuten ditu begirunez eta inizatiba erakusten du.	Ikasleak, oro har, jarrera aktiboa erakusten du saio gehienetan: apunteak hartzen ditu, zalantzak planteatzen ditu, ikaskideen mintzaldiak entzuten ditu begirunez eta inizatiba erakusten du.	Ikasleak sarri denbora galtzen du saioetan eta ez du ondo kudeatzen emandako denbora proiekturako. Gaztelania erabiltzen da, batez ere, komunikatzeko. Ez du zalantzarik planteatzen. Ikaskideen mintzaldiak ez ditu begirunez entzuten.
Partaidetza	Eztabaidetan hartzen du parte bere argudioak proposatuz. Bere taldekideekin egiten du lan jarduerak gauzatuz. Bere gain hartzen du ardura proiektuaren arrakasta bilatuz.	Eztabaidetan hartzen du parte maiz bere argudioak proposatuz. Bere taldekideekin egiten du lan gehienetan jarduerak gauzatzeko. Arduraren bat hartzen du baina ez era egokian.	Ez du eztabaidetan parte hartzen. Ez du taldekideekin lan egiten jarduerak gauzatzeko. Ez du ardurarik bere gain hartzen.
Lan kooperatiboa	Ikasleak taldean eraginkortasunez egiten du lan. Proposamenak aurkezten dizkio taldeari eta laguntza ematen die taldekideei. Beti erabiltzen ditu tresna digitalak lan	Ikasleak taldean eraginkortasunez egiten du lan oro har. Noizean behin proposamenak aurkezten dizkio taldeari eta laguntza ematen die taldekideei sarri. Sarri erabiltzen ditu	Isolamenduan egiten du lan eta ez du taldeko dinamikan parte hartzen. Ez du bere taldekideekiko erlazio komunikatiboa hasten.

	kooperatiboa bultzatzeko.	tresna digitalak lan kooperatiboa bultzatzeko.	
Aurkeztutako baliabideak			
Edukia	Aurkeztutako informazioak lortutako ezaguerez laburpen osoa eskaintzen digu. Informazioa antolatuta dago eta sinpletik konplexura doan ibilbidean eskaintzen da. Erabilitako estekak eta baliabideak aipatzen dira.	Aurkeztutako informazioak lortutako ezaguerez laburpen bat eskaintzen digu baina ideia edo kontzeptu batzuk ez dira agertzen. Informazioa antolatuta dago eta sinpletik konplexura doan ibilbidean eskaintzen da. Erabilitako esteka eta baliabide batzuk aipatzen dira baina ez guztiak.	Aurkeztutako informazioak ez digu lortutako ezaguerez laburpena eskaintzen. Informazioa ez dago ondo antolatuta. Erabilitako baliabide eta estekak ez dira aipatzen edo gaizki aipatzen dira.
Edukiaren aurkezpena	Testuekin irudiak erabiltzen dira ideia eta kontzeptu esanguratsuenak ilustratzeko. Aurkezpena dinamikoa da eta erabilitako baliabideek errazten dute ikuskatua. Egile-eskubideak errespetatzen dira.	Pantailetakoko batzuek irudiekin lagundutako testuak eta bideoak eskaintzen dituzte kontzeptu/idea garrantzitsuenak ilustratzeko asmotan. Aurkezpena dinamikoa da baina, pantailetakoko batzuek ez dute irakurketa errazten. Oro har egile-eskubideak errespetatzen dira.	Irudi/bideo gutxi aurkezten ditu kontzeptu eta ideiak ilustratzeko. Aurkezpena monotonoa da eta erabilitako baliabideek ez dute irakurketa errazten. Ez dira egile-eskubideak errespetatzen.
Aurkezpena			
Baliabideak	Taldeak baliabideak erabiltzen ditu aurkezpenean.	Taldeak baliabide batzuk erabiltzen ditu aurkezpenean.	Baliabide bat baino ez da erabiltzen eta zailtasunarekin.
Edukia eta diskurtsoa	Taldeak komunikazio-estrategia argia erabiltzen du ikerkuntza-prozesuan ikasitakoa azaltzeko asmotan. Diskurtsoa zuzena da	Taldeak, oro har, komunikazio-estrategia argia erabiltzen du ikerkuntza-prozesuan ikasitakoa azaltzeko asmotan baina	Ez da ikusten estrategia-komunikatibo argirik. Diskurtsoa akatsez beteta dago. Aurkezpena monotonoa da eta ez

	<p>eta ez dago akatsik. Aurkezpena dinamikoa da eta 10/15 minutu artean irauten du. Taldeak zuzentasunez erantzuten dituzte planteatutako galderak.</p>	<p>isiltasun une batzuk gertatzen dira. Oro har diskurtsoa zuzena da baina akats batzuk daude. Aurkezpena dinamikoa da eta 10/15 minutu artean irauten du. Taldeak zuzentasunez erantzuten dituzte planteatutako galdera batzuk baina ez guztiak.</p>	<p>du denbora errespetatzen. Egindako galdera asko erantzunik gabe geratzen dira.</p>
<p>Parte-hartzea eta koordinazioa</p>	<p>Partizipazioa orekatua da. Taldekideen arteko koordinazioa oso ona da.</p>	<p>Partizipazioa orekatua da oro har. Taldekideen arteko koordinazioa ona da baina kontzeptu edota ideia batzuk ez dira zuzentasunez erlazionatzen.</p>	<p>Partizipazioa desorekatua da. Ez dago taldekideen arteko koordinazioa.</p>

5. Gutxieneko ezagueren probarako koebaluazio- eta ebaluazio-irizpideak.

- Aurkeztutako proiektuan zer goraipatuko zenuke?
- Aurkeztutako lanean zer hobetuko zenuke?
- Zer ikasi duzu?
- Teorian aurkezten diren edukiak ondo islatze